



## II. ATALA

## BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO TOKI ADMINISTRAZIOA

## Bizkaiko Garraio Partzuergoa

«Bizkaiko Garraio Partzuergoaren tituluen erabiltzaileei bidaiari-garraio publikoko zerbitzua emateko tasak arautzen dituen zerga-ordenantza» ren aldaketaren behin betiko onspenaren iragarkia.

«Bizkaiko Garraio Partzuergoaren tituluen erabiltzaileei Bidaiari-garraio publikoko zerbitzua emateagatiko Tasak arautzen dituen zerga-ordenantza»-ren hasierako onspena, 2024ko martxoaren 22ko 59. zenbakidun Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu ondoren, espedientea jendaurrean egon da hogeita hamar (30) eguneko epean eta epe horretan ez da behin-behineko onarpenaren aurkako erreklamaziorik aurkeztu.

Hori dela eta, jakinarazten da hasierako onarpena behin betiko bihurtu dela, eta jarraian behin betiko onartutako Ordenantza horri erantsitako aldaketan testua argitaratzen da:

**BIZKAIKO GARRAIO PARTZUERGOAREN TITULUEN ERABILTZAILAEEI  
BIDAIARI-GARRAIO PUBLIKOKO ZERBITZUA EMATEAGATIKO TASAK  
ARAUTZEN DITUEN ZERGA-ORDENANTZA**

**2. artikulua. — Subjektu Pasiboak**

Tasaren subjektu pasiboak dira Zergei buruzko Foru Arau Orokorren 34. artikuluan aipatzen diren entitateak eta pertsona fisiko zein juridikoak, ordenantza honek arautzen duen zerbitzua eskatzen badute, edo zerbitzu horren onura edo eragina jasotzen badute.

Aurrekoa gorabehera, salbuetsita egongo dira CIE 10/OMS-2001ren arabera 2101, 2102, 2103, 2105 eta 2106 mugaketa-kodeak eta eurek eskatuta aintzatetsitako mendetasun-mailak dituzten %45eko edo gehiagoko desgaitasun intelektuala duten pertsonen laguntzeko pertsonak.

Eskaera Bizkaiko Garraio Publikoko Bezeroen Arretarako Bulego Integraletan aurkeztu beharko da. Interesdunek dagoeneko administrazio jardulearen esku dauden edo beste edozein administrazio egin dituen agiriak ez aurkezteko eskubidea dutela ezartzen duen Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 28. artikuluan xedatutakoa betetzearen ondoretarako, Bizkaiko Garraio Partzuergoak, interesdunak aurka egin ezean, datuen bitartekaritza-plataformen edo horretarako gaitutako beste sistema elektronikoko batzuen bidez elektronikoki kontsultatu edo eskatu ahal izango ditu eskabidea kudeatzeko beharrezkoak diren datuak eta dokumentuak, bereziki 2101, 2102, 2103, 2105 eta 2106 mugaketa-kodeak eta aintzatetsitako mendetasun-mailak dituzten %45eko edo gehiagoko desgaitasun-mailari dagoen baldintza betetzeari buruzkoak.

Bilbon, 2024ko maiatzaren 22an. — Zuzendari Nagusia, Roberto Muñoz García